

BERMEON KALE SALMENTA BAIMENAK ESLEITZEA
KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA

Bermeoko Urrian, Intxausti kaleko batzar gelan, 2016eko urriaren 21an, goizeko 8:00ak direnean, saio publikoan batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburuaren ordezkoa
Aritz Abaroa Cantuariense J^a, Zinegotzia
Aingeru Astui Zarraga J^a, Zinegotzia
Xabier Ortuzar Butron J^a, Zinegotzia
Karmele Muñoa Arrigain A^a, Udaleko Idazkaria
Eurne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, kontratazio mahaiaren idazkaria

Kontratazioaren helburua: Bermeon kale salmenta baimenak esleitzea

Batzarrari hasiera ematen zaio aztertuko diren gaiak aipatuz:

- Elkarlaneko kooperatiben dokumentazioa
- Salmenta baimenari uko egiteak
- Azokatxoko saltzaileen eskaera

Lehena: Elkarlaneko kooperatibak. Dagoeneko prozedurak ezarritako dokumentazioa aurkeztu duten eskatzaileen artean, hainbat elkarlaneko kooperatiben dokumentazioa aurkeztu dute. Gizarte Segurantzako dokumentazioan arazoan egon ez arren, kasu hauetan jarduera ekonomikoei buruzko zerga ez dago eskatzailearen izenean, elkarlaneko kooperatibaren izenean baizik.

Bigarrena: Urriaren 4ean izandako salmenta baimenen zozketan esleipen aukera lortu zuten saltzaile batzuk, aukera horri uko egin diote.

Hirugarrena: Egun azokatxoan dauden saltzaileek Alde Zaharrean kokatuko den azokatxo berria 2017ko urtarrilaren 3ra arte martxan ez jartzeko eskaera egin dute.

Goian aitatutako kontuan hartuta, honako **ERABAKIA** hartzen da:

LEHENA: Elkarlaneko kooperatiben jarduera ekonomikoei buruzko zerga aurkeztu dutenek, dokumentazioa aurkezteko epea amaitu baino lehen, haien izenean ateratako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.



BIGARRENA: Salmenta baimenaren aukerari uko egin duten kasuetan, hurrenkera jarraituz, hurrengo eskatzaileari dokumentazio aurkezteko errekerimendua bidali beharko zaio.

HIRUGARRENA: Azokatxoko saltzaileek egindako eskaeraren aurrean, legeak ezartzen dituen epeak beteko dira.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.



IDAZKARIAK

